

## FAMILIA-EKOLOGIAREN EBALUAZIOA GIPUZKOAKO INMA PROIEKTUAN





paren+ing  
paren+alité  
paren+alidad  
guraso+asuna




## PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Ingurumeneko gai kutsagaiek umeen **garapen neurologikoan eta jokamoldeanduten** eragina ebaluatzea.
- INMA/Gipuzkoa kohorteko 2 urteko umeen **familia-testuinguruen kalitatea** ebaluatzea
- **Familia-testuinguruen kalitateak 2 urteko umeen garapen kognitiboan** duten eragina aztertzea.



















## LAGINA, TRESNAK eta PROZEDURA:

- 2006 urtean Goierri eta Urola ibarraren zati batean (Gipuzkoan) bildutako 436 familia.
- **Etxadi-Gangoiti eskala**. Familia-testuinguruen kalitatea neurtzeko erabili da.
- **Bayley** eskala. Umeen garapen kognitiboa eta psikomotorea ebaluatzeko.
- Aurretik entrenatutako neuropsikologoek banan banan aplikatu dute Bailey eskala eta psikologoek familia guztiak bisitatu dituzte familia-testuingurua ebaluatzeko.



## ETXADI GANGOITI ESKALA (2 urte)

|   |  |  |   |
|---|--|--|---|
| <p><b>•GARAPEN KOGNITIBO ETA LINGUISTIKOAREN ESTIMULAZIOA</b></p>               |  | <p><b>TESTUINGURU SOZIALAREN ANTOLAKUNTZA ETA INGURUNE FISIKOAREN KALITATEA</b></p>                      |   |
| <p><b>•Ikasteko materialak</b></p>  |   | <p><b>Aitaren inplikazioa</b></p>  |    |
| <p><b>•Jolas-potentziala</b></p>  |    | <p><b>Ordezko zaintzaren kalitatea</b></p>   |    |
| <p><b>•Garapen kognitiboaren estimulazioa</b></p>                               |   | <p><b>Familia hedatuarekiko harremanak , gizarte-sarearekikoak eta zerbitzu-sarearekikoak.</b></p>       |    |
| <p><b>•Garapen linguistikoaren estimulazioa</b></p>                             |  | <p><b>Umearen harreman sozialen egonkortasuna eta gurasoek harremanok sustatzeko duten interesa.</b></p> |    |
| <p><b>•GARAPEN SOZIO-EMOZIONALAREN ESTIMULAZIOA</b></p>                         |   | <p><b>Familiaren eta eskolaren arteko harremanak</b></p>   |    |
| <p><b>•Adierazkortasun emozionala.</b></p>                                      |   | <p><b>Esperientzia-aniztasuna</b></p>  |   |
| <p><b>•Mugak ezartzea eta frustrazio optimoa (Erresilientzia sustatzea)</b></p> |   | <p><b>Gatazkarekiko esposizio falta</b></p>  |  |
| <p><b>•Autoestimua eta autonomia bultzatzea.</b></p>                            |    | <p><b>Guraso-estresik eza</b></p>  |  |
| <p><b>•Elkarrizketan amarekiko interakzioa behatzea.</b></p>                    |  | <p><b>Ingurune fisikoaren kalitatea</b></p>  |   |

## EMAITZAK:

- Bi tresnek erakutsi dute **fidagarritasun egokia** dutela eta umeen arteko nahiz euren familien arteko **aldakortasuna detektatzeko** balio dutela.
- Argi geratu da **akalitate handia duten familietako umeek garapen kognitibo handiagoalortzen** dutela.
- Argi geratu da **garapen kognitiboa estimulatzea, aita hazieran inplikatzeari, esperientzia-aniztasuna eta amaren lana eskuzkoa ez izatea** umeen garapen kognitiboan eragin positiboa duten faktoreak direla.



## ONDORIOAK ETA INPLIKAZIOAK:

- Familia guztiek ez dituzte seme-alaben garapena bultzatzeko testuinguru optimoak eraikitzen. % 15ak gabeziak ditu testuinguruaren hainbat **faktore babesleri** dagokienez, baita zenbait **arisku-faktore ere**.
- Familia horientzat onuragarria litzateke hezkuntzako esku-hartze prebentibo goiztiar bat faktore babesleak indartu eta arisku-faktoreak murrizteko.
- Gomendagarria da prebentziozko ebaluazioa erabiltzea gizarte arloan esku hartzeko lehenetsuneko politika gisa.





paren+ing  
paren+alité  
paren+alidad  
guraso+asuna



Copyright: egitura eta testuak Hæzi/Etxadi . Hedatzeko baimena du

Bilboko Udal Gorenak.



# Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO